

XX. mendeko olerkari greziarrak

KOLDO RUIZ DE AZUA

“Matónoo” aditzak odolustu esan nahi du grekoz. Odolustu egin zen Grezia ia bi mendez. Lehenik, mende bat baino gehiago iraun zuen independentzia gerran. Izan ere, estatu berria 1821ean jaio bazen ere, Egeoko uharteak eta Asia Txikiko lurraldeak berreskuratzeke borroka 1922ko hondamendiarekin bukatu zen. Orduan, milioi eta erdi greziar bota zituzten Turkiatik. Beste horrenbeste beren jaioterrian hil zituzten. 1936an Metaxas jeneralak diktadura ezarri zuen, eta komunistak eta Asiatik etorritako greko-turko horiek jazarri zituen. Bigarren Mundu Gerran, garesti ordaindu zuten greziarrek, oso garesti, albaniar, italiar eta alemaniarren aurkako erresistentzia. Fusilamenduak eta zibilen kontrako mota guztietako erasoez gain, ehunka mila lagun hil ziren gosez. Gerra bukatzeaz zegoela eta, aliatuen laguntzarekin, greziarrak naziak garaitzeaz zeudela, kanpoko potentziek erresistentziako kideak xaxatu zituzten elkarren kontra borrokatu zitezten. Gerra zibila 1949an amaitu zen. Errepresioa ez: ezkerreko herritarrak uharte

espetxeetara eta kontzentrazio esparruetara bidaltzen zituzten Pablo I.aren eta Konstantino II.aren *demokrazian*. Egoerak okerrera egin zuen Koronelen diktaduran (1967-1974). Gerokoa ezagunagoa dugu: turismoa, mirari ekonomiakoa, Europar Batasuna, Olinpiadak, krisia, ...

Bada, 1821-1974 tarte horretan, Greziak izugarritzko loraldi kulturala bizi zuen. Solomos, Palamas eta Kavafis olerkariak XIX. mendean. Kazantzakis olerkari eta eleberridazlea XX. mendearen hasieran. Musika estilo berri baten sorrera, *renbetiko* izenekoa, Asia Txikiko erbesteratuek 20ko hamarkadan sortua Pireoko auzo txiroetan. Theodorakis, Hatzidakis eta Vangelis musikariak gerra ondoko hamarkadetan. Kostas-Gavras, Kakoiannis eta Angelopulos zinemagileak. Eta olerkari konstelazioa, non, hiru izarrek dir-dir berezia egiten baitute: Elytis, Seferis eta Ritsos. Lehenengo biak Nobel saridunak; Ritsos, berriz, espetxez espetxe ibili zen, eta 1977an Bakearen Lenin saria jaso zuen.

Gogora ditzagun, laburki bada ere, hiru olerkari handi horien bizitza eta lan nagusiak.

Giorgos Seferis Esmirnan (Turkiako kostaldean) jaio zen 1900ean, familia aberats batean. Bere aitak Lord Byron-en lanak itzuli zituen. Atenasen ikasi zuen, eta, letren munduak erakarri arren, karrera diplomatikoari ekin zion, batez ere, bere jaioterriko sarraskiak (1922) eraginda. Londoneko enbaxadan lan egin zuenean, T.S. Elliot-en olerkiak irakurri eta eredutzat hartu zituen, Kavafisekin batera. Lanik aipagarrienak gazetako garaikoak izan arren, *Strofi (Itzulera)* (1931) eta *Mythistorima* (1935), 1971ean hil zen arte jarraitu zuen idazten. Gerraostean, enbaxadore izan zen Erresuma Batuan eta Ekialde Hurbilean, 1962an erretiroa hartu zuen arte. Hurrengo urtean Literaturaren Nobel saria eman zioten. Monarkikotzat eta eskuinekotzat har badezakegu ere, gogor kritikatu zuen koronelen diktadura.

Arestian aipaturiko eraginez gain, Homeroren *Odisea* lema da bere olerkien esanahiaren norabidean. Seferis Egeo itsasoarekin maitemundurik dago; Greziarekin eta, bereziki, arazo geopolitikoak direla-eta loa kentzen zion Ziprerekin. Horrekin batera, Esmirma betiko galdu izanaren pena erakusten digu. Hizkera sinplea darabil, ulertzeko erraza, gertukoa.

Odiseas Elytis-ek (1911-1996) Egeotik edaten du. Itsaso urdinetik, zeru urdinagotik eta etxe kareztatu zurietatik. Izurdeak eta sirenak dabilta inguruan. Familia Lesbos uhartekoa, bera Kretan jaioa. Mapan ikus dezakegunez, Egeoren alde batetik bestera. *Zikladikoa* da Elytis. Horrela agertzen da,

biluzik, bere lehen liburuan, 1939an argitaratutako *Prosanatolismos*-en (*Norabideak*). “Gazte alejandrinoek ez zidaten barkatu” diosku. Gerra eta gosearen erdian, Elytisek kantatzen digu zein polita diren Mediterraneo eta bizitza. Albaniako frontean borrokatu zen gerraren hasieran. Idazten jarraitu, García Lorcaren zenbait olerki itzuli... eta gerran ikusitakoa gorde zuen 1959an *Axion Esti* (*Dignum est* izenburuarekin ezaguna Mendebaldean) argitaratu arte. Batzuek berriro kritikatu zuten. Theodorakisek olerkiak musikatu zituen, arrakastaren seinale eta arrakasta handiagoren iturri. Ez omen ziren gerrako pasarte ilun, odoltsu eta krudelak gogoratzeko garaiak. 1978an jaso zuen Nobel saria, urte batzuk lehenago Koronelen *Juntaren* literatur sariari uko egin ondoren. “Orain funtsezkoenean arituko naiz” esan zuen. Olerkiak gero eta kriptikoagoak bilakatu ziren, eta heriotzaren gaia nagusituz joan zen. Elytis-en poesia ereduak Grezian bertan daude (Embirikos eta beste batzuk).

“Poesiak gizakiak batzen ditu, ideologiengainetik”, hala zioen **Giannis Ritsos**-ek (1909-1990). Lur jabe aberatsen familia batean sortua, Peloponesoko hegoaldean, ikusi zuen nola hil zituen tuberkulosiak ama eta anaia, nola galdu zituzten lurra eta dirua eta nola jasan zuen aitak buruko gaixotasun baten zama eta estigmatizazioa. Giannisek berak, tuberkulosiak jota, urte batzuk igaro behar izan zituen ospitale batean. Sendatu zenean, Greziako Alderdi Komunistan izena eman eta olerkiak argitaratzen hasi zen, 1931n. *Epitáphios* 1936an argitaratu zuen, greziar poesia tradizionalari agur esanez.

10.000 ale saldu ziren alderdiaren egunkariarekin batera. Urte berean Metaxas diktadorearen jarraitzaileak, komunisten eta ezkerrekoen kontrako jazarpenean, liburuaren aleak publikoki erre zituzten Akropoliaren aurrean. Ritsosek jarraitu zuen idazten eta borroka politikoan, errealismo soviatarretik surrealismora, baina beti alderdiaren esanetan. Gerra zibilean atxilotu zuten, eta zenbait espetxetan egon zen; besteak beste, Makronisos uharte espetxe beldurgarrian, non ohikoak baitziren jipoiak eta torturak. Askatu eta gero, *I Sonáta Tu Selinófotos (Ilargiaren argitako kanta)* idatzi zuen 1956an, eta urte horretan bertan Literaturaren Sari

Nazionala jaso zuen. Theodorakisek *Epitaphios* musikatu zuen. Urte haietan bere lan goren eta bikainena idatzi zuen, *Romyosine (Grekotasuna)* poema epikoa. Herri greziarra da protagonista, eta Mundu Gerrako eta Gerra Zibileko garaia dakarkigu. Berehala musika jarri zion Theodorakisek. Borroka eta oinazea, ordea, ez ziren iraganeko kontuak eta *Juntak* berriro atxilotu zuen. Gaixo zegoenez, espetxetik atera eta Samos irlara deportatu zuten. 1977an, Lenin Saria eman zioten: “niretzat Nobel saria baino inportanteagoa”, esan zuen. Hil arte jarraitu zuen idazten eta argitaratzen.

Odiseas Elytis

ΗΡΘΑΝ ΝΤΥΜΕΝΟΙ ΦΙΛΟΙ

Ἦρθαν
ντυμένοι φίλοι
αμέτρητες φορές οι εχθροί μου
το παμπάλαιο χόμα πατώντας.
Και το χόμα δεν έδεσε ποτέ με τη φτέρνα τους.

Ἐφεραν το Σοφό, τον Οικιστή, και το Γεωμέτρη,
βίβλους γραμμάτων και αριθμών,
την πάσα υποταγή και δύναμη,
παμπάλαιο φως εξουσιάζοντας.
Και το φως δεν έδεσε ποτέ με τη σκέπη τους.

Ούτε μέλισσα καν δεν γελάστηκε
το χρυσό ν' αρχίσει παιχνίδι
ζέφυρος καν, τις λεύκες να φουσκώσει ποδιές.

Ἐστησαν και θεμελίωσαν
στις κορφές, στις κοιλάδες, στα πόρτα
πύργους κραταιούς και επαύλεις
ξύλα και άλλα πλεούμενα,
τους νόμους τους θεσπίζοντας
τα καλά και συμφέροντα,
στο παμπάλαιο μέτρο εφαρμόζοντας.

Και το μέτρο δεν
έδεσε ποτέ με την σκέψη τους.
Ούτε καν ένα χνάρι θεού
στην ψυχή τους σημάδι δεν άφησε
ούτε καν ένα βλέμμα ξωθιάς
τη μιλιά τους δεν είπε να πάρει.

Ἐφτασαν ντυμένοι «φίλοι»
αμέτρητες φορές οι εχθροί μου
τα παμπάλαια δώρα προσφέροντας.
Και τα δώρα τους άλλα δεν ήτανε
παρά μόνο σίδηρο και φωτιά.
Στ' ανοιχτά που καρτέραγαν δάχτυλα
μόνο όπλα και σίδηρο και φωτιά.

LAGUN JANTZITA ETORRI ZIREN

Etorri ziren
“lagun” jantzita
milaka aldiz nire etsaiak
antzinako lurra zapalduz.
Eta lurra ez zitzaien inoiz orpoetan atxiki.

Ekarri zituzten Jakintsua, Arkitektoa eta Geometra,
letra eta zenbakietako Bibliak,
Men Egite eta Indar osoa
antzinako argiaz jabetuz.
Eta argia ez zitzaien inoiz teilatuetan atxiki.

Erle batek ere ez zion, trufaturik, jolas urrekarari ekin
eta mendebaleko haize batek ere ez zituen
amantala zuriak hauspotu.

Eraiki eta fundatu zituzten
gailurretan, haranetan, mendateetan,
dorre boteretsuak eta etxaldeak,
txalupak eta itsasontziak,
Legeak, ona eta komenigarria
agintzen dutenak,
antzinako neurrira doitzuz.

Eta neurria ez zitzaien
inoiz pentsamoldera atxiki.
Jainkoaren aztarna batek ere
ez zuen seinalerik utzi beren ariman:
lamina baten begirada batek ere
ez zien hitza eraman.

Heldu ziren “lagun jantzita”
milaka aldiz nire etsaiak
antzinako opariak eskainiz.
Eta beren opariak
burdina eta sua ziren, besterik ez.
Esku zabalduetan
armak eta burdina eta sua, besterik ez.

ΤΟΥ ΑΙΓΑΙΟΥ

Α΄

Ο έρωτας
Το αρχιπέλαγος
Κι η πλώρα των αφρών του
Κι οι γλάροι των ονείρων του
Στο πιο ψηλό κατάρτι του ο ναύτης ανεμίζει
Ένα τραγούδι.

Ο έρωτας
Το τραγούδι του
Κι οι ορίζοντες του ταξιδιού του
Κι η ηχώ της νοσταλγίας του
Στον πιο βρεμένο βράχο της η αρραβωνιαστικιά προσμένει
Ένα καράβι.

Ο έρωτας
Το καράβι του
Κι η αμεριμνησία των μελτεμιών του
Κι ο φλόκος της ελπίδας του
Στον πιο ελαφρό κυματισμό του ένα νησί λικνίζει
Τον ερχομό.

EGEOARENA

I

Amodioa
Uhartedia
Eta bere aparren branka
Eta bere ametsetako kaioak
Bere masta luzeenean marinela haizatzen du
Abesti bat.

Amodioa
Bere abestia
Eta bere bidaiaren zerumuga
Eta bere nostalgiaren oihartzuna
Arkaitz bustienean andregaiak itxaroten du
Itsasontzi bat.

Amodioa
Bere itsasontzia
Eta ipar haizeen axolagabekeria
Eta bere itxaropenaren fokean
Bere olatu leunarekin irla batek kulunkatzen du
Heltzea.

B´

Παιχνίδια τα νερά
Στα σκιερά περάσματα
Λένε με τα φιλιά τους την αυγή
Που αρχίζει
Ορίζοντας -

Και τ' αγριοπερίστερα ήχο
Δονούνε στη σπηλιά τους
Ξύπνημα γαλανό μες στην πηγή
Της μέρας
Ήλιος .

Δίνει ο μαΐστρος το πανί
Στη θάλασσα
Τα χάρδια των μαλλιών
Στην ξεγνοιασιά του ονείρου του
Δροσιά.

Κύμα στο φως
Ξαναγεννάει τα μάτια
Όπου η Ζωή αρμενίζει προς
Τ' αγνάντεμα
Ζωή.

II

Urak jolasa
Pasabide gerizpetsuetan
Euren muxuekin egunsentia aipatzen dute
Horrek hasi du
Zerumuga

Basausoek hotsa
Dardaratzen dute euren haitzuloetan
Esnatzen urdina iturrian
Egunaren
Eguzkia.

Mistral haizeak bela ematen dio
Itsasoari
Ileen laztanak
Bere ametsaren soseguan
Ihintza.

Olatu argian
Birsortzen ditu begiak,
Non bizitzak nabigatzen duen
Kontenplaziorantz,
Bizitza.

Giorgos Seferis

ΑΡΝΗΣΗ

Στο περιγιάλι το κρυφό
κι άσπρο σαν περιστέρι
διψάσαμε το μεσημέρι
μα το νερό γλυφό.

Πάνω στην άμμο την ξανθή
γράψαμε τ' όνομά της
Ωραία που φύσηξε ο μπάτης
και σβήστηκε η γραφή .

Με τι καρδιά, με τι πνοή,
τι πόθους και τι πάθος
πήραμε τη ζωή μας· λάθος!
κι αλλάξαμε ζωή.

UKAZIOA

Hondartza ezkutuan
usoa bezain zuria
egarri eguerdian
baina ura, gazia.

Area horiaren gainean
idatzi genuen haren izena,
gogor jo zuen haizeak,
ezabatu ziren letrak.

Zein bihotz, zein arnas,
Zein grina eta oinazerekin
Hartu genuen bizitza: gaizki!
Aldatu genuen bizitza.

ΚΡΑΤΗΣΑ ΤΗ ΖΩΗ ΜΟΥ

Κράτησα τη ζωή μου
ταξιδεύοντας ανάμεσα σε κίτρινα δέντρα,
κάτω απ' το πλάγιασμα της βροχής
σε σιωπηλές πλαγιές φορτωμένες
με τα φύλλα της οξιάς
καμιά φωτιά
στην κορυφή τους βραδιάζει.

BIZITZARI EUTSI NION

Bizitzari eutsi nion
zuhaitz horisken artean bidaiatzen
euria gainean zetzala
malda zamatu isiletan
pagoaren orbeletan
inolako surik
beren arratsaldeko gailurretan.

Giannis Ritsos

ΚΑΙ ΝΑ ΑΔΕΡΦΕ ΜΟΥ

Και να αδερφέ μου
που μάθαμε να κουβεντιάζουμε
ήσυχα, ήσυχα κι απλά.
Καταλαβαινόμαστε τώρα
δε χρειάζονται περισσότερα.

Κι αύριο λέω θα γίνουμε
ακόμα πιο απλοί.
Θα βρούμε αυτά τα λόγια
που παίρνουνε το ίδιο βάρος
σ' όλες τις καρδιές,
σ' όλα τα χείλη,
έτσι να λέμε πια
τα σύκα σύκα
και τη σκάφη σκάφη.

Κι έτσι που να χαμογελάνε οι άλλοι
και να λένε:
«Τέτοια ποιήματα
σου φτιάχνω εκατό την ώρα».
Αυτό θέλουμε κι εμείς.
Γιατί εμείς δεν τραγουδάμε
για να ξεχωρίσουμε, αδελφέ μου,
απ' τον κόσμο.
Εμείς τραγουδάμε
για να σμιζουμε τον κόσμο.

ORAIN ENE ANAIA

Orain, ene anaia,
ikasi dugula solasean
lasai, lasai eta xalo
orain ulertzen ari gara
ez dugu besterik behar.

Bihar bihurtuko gara
are xaloago,
hitzak aurki ditzagun,
zama berekoak,
bihotz orotan,
ezpain orotan,
esan dezagun
gauzen izena eta izana.

Horrela besteek barre egin dezatela
eta esan dezatela:
“Horrelako olerkiak,
ehun moldatzen ditut ordu batean”.
Horixe nahi dugu guk ere.
Ez baitugu abesten,
ene anaia, herritik
bereizteko.
Guk abesten dugu
herriarekin bat egiteko.

ΑΥΤΑ ΤΑ ΚΟΚΚΙΝΑ ΣΗΜΑΔΙΑ

Αυτά τα κόκκινα σημάδια στους τοίχους, μπορεί να `ναι κι από αίμα.
Όλο το κόκκινο στις μέρες μας είναι αίμα,
μπορεί να `ναι κι απ' το λιόγεμα, που χτυπάει στον απέναντι τοίχο.

Κάθε δειλί τα πράγματα κοκκινίζουν πριν σβήσουν
και ο θάνατος είναι πιο κοντά. Έξω απ' τα κάγκελα,
είναι οι φωνές των παιδιών, και το σφύριγμα του τρένου.

Τότε τα κελιά γίνονται πιο στενά
και πρέπει να σκεφτείς το φως σ' έναν κάμπο με στάχνα,
και το ψωμί στο τραπέζι των φτωχών
και τις μητέρες να χαμογελάνε στα παράθυρα,
για να βρεις λίγο χώρο να απλώσεις τα πόδια σου.

Κείνες τις ώρες, σφίγγεις το χέρι του συντρόφου σου,
γίνεται μια σιωπή γεμάτη δέντρα,
το τσιγάρο κομμένο στη μέση, γυρίζει από στόμα σε στόμα,
όπως ένα φανάρι που ψάχνει το δάσος, βρίσκουμε τη φλέβα
που φτάνει στην καρδιά της άνοιξης, χαμογελάμε.

HORMETAKO MARKA GORRI HAUEK

Hormetako marka gorri hauek odolezkoak ere izan daitezke.
Gure egunotako gorri osoa odolezkoa da,
Eguzkia ere izan daiteke aurreko horman jotzean.

Ilunabarrero gauzak gorritzen dira itzali baino lehen
eta heriotza hurbilago dago. Barroteetatik harago,
umeen ahotsak eta trenaren txistua.

Orduan ziegak estuago bihurtzen dira
eta argia gogoratzen duzu, galsoro batean,
eta ogia, pobreen mahaian
eta amen irribarrea, leihoetan,
ea lekua aurkitzen duzun hankak luzatzeko.

Horrelako uneetan zure burkidearen eskua estutzen duzu
zuhaitzez betetako isilunea sortzen da,
zigarro erdia ahoz aho ibiltzen da,
basoaren zain dabilen linterna balitz bezala,
bihotza udaberriarekin lotzen duen zaina bilatzen dugu, irribarre egiten dugu.

ΒΡΕΣ ΧΡΟΝΟ

Βρες χρόνο για δουλειά,
αυτό είναι το τίμημα της επιτυχίας.
Βρες χρόνο για σκέψη ,
αυτό είναι η πηγή της δύναμης.
Βρες χρόνο για παιχνίδι,
αυτό είναι το μυστικό της αιώνιας νιότης.
Βρες χρόνο για διάβασμα,
αυτό είναι το θεμέλιο της γνώσης.
Βρες χρόνο να είσαι φιλικός,
αυτό είναι ο δρόμος προς την ευτυχία.
Βρες χρόνο για όνειρα,
αυτά θα τραβήξουν το όχημά σου ως τ' αστέρια.
Βρες χρόνο ν' αγαπάς και ν' αγαπιέσαι,
αυτό είναι το προνόμιο των θεών.
Βρες χρόνο να κοιτάς ολόγυρά σου,
είναι πολύ σύντομη η μέρα για να 'σαι εγωιστής.
Βρες χρόνο να γελάς,
αυτό είναι η μουσική της ψυχής.
Βρες χρόνο να είσαι παιδί,
για να νιώθεις αυθεντικά ανθρώπινος.

BILATU DENBORA

Bilatu denbora lanerako,
hori da arrakastaren prezioa.
Bilatu denbora pentsatzeko,
hori da indarraren iturria.
Bilatu denbora jolasteko,
hori da betiko gaztetasunaren sekretua.
Bilatu denbora irakurtzeko,
hori da ezagutzaren oinarria.
Bilatu denbora atsegina izateko,
hori da arrakastarako bidea.
Bilatu denbora amets egiteko,
horrek zure gurdia izarretaraino eramanen du.
Bilatu denbora maitatzeko eta maitatua izateko.
hori da jainko-jainkosen onura.
Bilatu denbora zure ingurura begiratzeko,
eguna laburregia da zeurekoia izateko.
Bilatu denbora barre egiteko,
hori arimaren musika da.
Bilatu denbora umea izateko,
horrela benetako gizakia senti zaitezen.

ERREFERENTZIAK

ELYTIS, O. *Dignum est y otros poemas*. Ed. Gutenberg, Bartzelona, 2008. ISBN: 978-84-8109-717-7

SEFERIS, G. *Mythistorima, Poesía Completa*. Ed. Gutenberg, Bartzelona, 2012. ISBN: 978-84-8109-978-2

RITSOS, G. *Poiimata*. Ed. Kedros, Atenas, 1961-1975. ISBN: 978-960-04-0339-8

Resumen

Grecia, ese país de la Unión Europea que aparece tan a menudo en los medios de comunicación debido a sus problemas económicos y políticos, ha tenido durante el siglo XX una ingente producción cultural en diversos ámbitos: literatura, cine, música... Y sigue teniéndola, a pesar de múltiples dificultades. Sin embargo, su producción artística, al igual que su historia y su cultura, es algo desconocido para los europeos occidentales. También para los vascos: una lengua minoritaria en el marco europeo resulta desconocida para otra lengua más minoritaria aún. No entra en nuestro canon, como si el telón de acero del cisma católico-ortodoxo persistiera. Recordemos con estas poesías a Elytis, Seferis y Ritsos.

Résumé

La Grèce, ce pays de l'Union Européenne si souvent cité dans les médias à cause de ses problèmes économiques et politiques, a connu pendant le XXe siècle un grand essor culturel dans divers domaines, tels que la littérature, le cinéma, la musique, etc. Et cet essor continue, malgré les nombreuses difficultés auxquelles elle se trouve confrontée. Néanmoins, sa production artistique, ainsi que son histoire et sa culture restent encore inconnues pour la plupart des européens occidentaux, dont les Basques. De sorte qu'une langue minoritaire au sein de l'Europe demeure inconnue pour les locuteurs d'une langue encore plus minoritaire comme la nôtre. En effet, elle ne s'inscrit pas dans le cadre de nos modèles habituels, comme si le schisme catholico-orthodoxe perdurait encore. Par ces quelques poésies nous voulons rendre hommage à des auteurs tels que Elytis, Seferis et Ritsos.

Abstract

In the 20th century, Greece, the European Union country that so often appears in the media due to its economic and political problems, has had an enormous cultural output in various areas including literature, cinema, and music, and this production continues, despite multiple difficulties. Nevertheless, its artistic output suffers the same lack of recognition as its history and culture among western Europeans. And among the Basques: a European minority language is largely unknown by an even more minority language. Greek is not part of our canon, as if the iron curtain between Catholic and Orthodox still existed. These poems bring Elytis, Seferis, and Ritsos to mind.

